

## NOR NIRE AURKA?

*"Uso zuria"*

**1**

Jainko Aitaren indarra  
maitasunezko sugarra.  
Gu salbatzera bialdu euskun  
behin Jesus Seme bakarra;  
Aita zara ta, seme-alabok  
daukazu zaindu beharra.

**2**

Gugaitik jaio ta bizi,  
hilaz gaitu irabazi.  
bizia emon eta ondoren  
ezin gaitu galtzen itzi;  
Jesus, Zu gugaz zaitugun arte  
danen aurka geu nagusi!

**3**

Aintza Espirituari,  
gure bideko gidari.  
Goiko indarrez sendotzen gaitu  
ixuriz grazi ugari;  
zure laguntzaz nor gure aurka,  
nok eutsi gure indarrari?

**4**

Ama on baten modura  
Mariak gure ardura.  
Jesusek Berak itzi ginduzan  
oi ama, zure kontura;  
zure eskutik helduko gara  
zorioneko portura.

**5**

Zenbat ta zelango lagun,  
guk gure alde daukagun!  
Ez da inor ta ez da ezer be  
gu hondatzekorik inun;  
azken txapela gurea da ta,  
gogor jokatu dagigun!



A. Martzel